

HONDAKINEN BILKETA SISTEMA ALDATZEKO PARTAIDETZA PROZESUA

2014-10-15. 2.SAIOAREN AKTA
HONDAKIN SORTZAILE BEREZIAK

informatu
pentsatu
erabaki

infórmate
piensa
decide



BILERAREN XEHETASUNAK:

- Bilera zenbakia: 2
- Data: 2014-10-15
- Lekua: Zabil kultur etxea.
- Hasiera ordua: 15:00
- Amaiera ordua: 16.45

DINAMIZAZIOA:

- Parte hartzaile kopurua: 14 sortzaile berezi. 8 emakume eta 6 gizon.
- Dinamizatzaileak: ArkaitzMartinez de Albeniz eta Ekhi Oñate.

1. ONGI ETORRIA ETA AURKEZPENA

Saioaren hasieran, Arkaitz Martinez de Albeniz Aztiker ikergune sozialeko kideak hartu du hitza bertaratutakoei ongi etorria eta gerturatu izanagatik eskerrak emateko.

Ondoren partaidetza prozesuaren inguruko nondik norakoak gogoarazi ditu eta 2.saioari hasera eman dio.

2. SAIOAREN KOKAPENA

Aurkezpenaren ondoren, Arkaitzek saio honen kokapena egin du.

Hasteko, fase berri honen, hau da, bilketa aukera ezberdinen azterketa, kokapena egin du eta mahai-inguruaren laburpentxo bat azaldu du, atera ziren ideia nagusik azalduaz.

Mahai-inguruan lau bilketa sistema ezagutzeko aukera egon zen, gaurko saioan hauetako 3 aztertu eta baloratuko dute herritarrek.

Hiru sistema hauek, 4 frakzio nagusiak atez ate biltzen dituenak, edukiontzi derrigorrezko sistema eta sistema mistoa, prozesu honen helburuetako batzuk bete ditzaketela ulertuta aukeratu dira. Hondakinen gaikako bilketa %60ko tasa bermatzen dutela ulertuta.

Gaur landuko diren sistema guztiek ezaugarri komun batzuk dituzte:

1. Edukiontzi berdea desagertzen da
2. Frakzio guztiak gaika biltzeko beharra dago

Desberdintasunak, sailkatze helburuei dagokionean, sistema bakoitzak frakzio batzuk edo besteei egiten dien jarraipenean daude, eta jarraipen hori egiteko modua (pertsonalizatua edo kolektiboa).

Dinamizatzaileak azaldu du hondakinak biltzeko aukera gehiago daudela eta herri bakoitzak bere berezitasunak ezartzen dituela, beraz, gaurkoan sistema bakoitzak dauzkan ezaugarri nagusiak azaldu eta aztertuko dira.

Prozesu hau hondakinen egoera aldatu eta hobetzeko helburuarekin jarri da martxan, eta aldaketa honen norabidean erreferentziazkoak izan daitezke 3 aukera aztertuko dituzte partaideek.

3. SISTEMA BAKOITZAREN AZTERKETA

Azalpenak burutu ondoren, 2 taldeetan banatu gara 2 txoko ezberdinetan dinamizatzaile iraunkor bat egon delarik. Txoko bakoitzean mahai-inguruan ikusi ziren 4 sistemetako 3 aztertu dira: atez ate, edukiontzi betebeharrezkoa eta sistema mistoa.

Txoko bakoitzean partaide guztiak sistema guztien inguruko azterketa burutu dute eta 6 aldagairen inguruan ikusten dituzte indar-guneak eta ahulguneak azaleratuz.

Jarraian ariketaren emaitza eta posizionamenduak aurkezten dira:

EDUKIONTZI BETEBEHARREZKOA

Hauek dira kokapen gisa sistema honen ezaugarri nagusiak:

- HELBURUA GAIKAKO BILKETA %70tik GORAKO TASA IZATEA (GIPUZKOAN ORAINDIK EZARRI GABE DAGO)
- FRAKZIO GUZTIAK EDUKIONTZI BIDEZ BILTZEN DIRA
- FRAKZIO BATZUK TXIP BIDEZ KONROLATUAK DAUDE (Organikoa eta errefusa normalean)
- KONROLA TALDEKATUA DA (100-200 BIZTANLE ARTEKOA). Herritarrak giltza batekin ireki dezake kontenedorea baina irekiera kontrolak taldekatuak dira
- EGUN OSOAN BILTZEKO AUKERA ESKAINTZEN DUTE EDUKIONTZIEK
- HERRIAN ZEHAR EDUKIONTZI GUNE DESBERDINAK DAUDE
- INBERTSIOA: TXIPak ETA EDUKIONTZIAK
- AUZOKONPOSTA ETA AUTOKONPOSTA INDARTZEA (HOBARIAK)

Hona hemen sistema honen inguruan atera diren iritziak:

ALDAGAIA	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
Gaikako bilketa	<ul style="list-style-type: none"> • Tasak gora egingo dute. • Ondo egin ez gero ongi birziklatuko da. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gaizki egin ez gero ez da jakingo zeinek egin duen gaizki.
Inpaktu ekonomikoa: bilketa eta tratamendua	<ul style="list-style-type: none"> • Etorkizunean hobekuntza ekar dezake. 	<ul style="list-style-type: none"> • Inbertsioa garesti irteten da.
Egungo azpiegituren erabilera	<ul style="list-style-type: none"> • Aldaketa gutxien suposatzen duen sistema da. • Edukiontzi lurperatuak erabil daitezke 	<ul style="list-style-type: none"> • Edukiontzi lurperatuekin zer gertatuko den.
Herritarren egokitzapena	<ul style="list-style-type: none"> • Ez du aldaketa askorik suposatzen. • Jendeak ezagutzen du sistema. 	
Erosotasuna(ordutegia,...)	<ul style="list-style-type: none"> • Ordutegi erosoak. Nahi denean botatzeko aukera dago. • Oso erosoak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Guneak gertu egotea.(proposamena) • Frakzio guztiak elkarrekin egotea.(proposamena) • Aho handia izatea.(proposamena) • Liosoa da.
Erabiltzaileen erantzukizuna kontzientzia		<ul style="list-style-type: none"> • Kontzientzia gutxi dago.

ATEZ ATE:

Hauek dira kokapen gisa sistema honen ezaugarri nagusiak:

- FRAKZIO GUZTIAK ATEZ ATE BILTZEN DIRA
- BILKETA eta JARRAIPENA INDIBIDUALIZATUA DA (Familia bakoitzak jasotzen duenaren jarraipena dago)
- %75-%85 inguruko GAIKAKO SAILKATZE TASAK BERMATZEN DITU
- HONDAKINAK BILTZEKO ORDUTEGIA ETA EGUTEGI ZEHATZA DAGO (Egun bakoitzean frakzio bat jasotzen da eta ordutegi batekin)
- INBERTSIOA ALTUA HASIERAN (diru-sarrerekin amortizatzeko aukera)
- LANDA GUNEETAN EKARPEN GUNEA DAUDE
- LARRIALDI GUNEAK EXISTITZEN DIRA (Urgentziatzeko kasuetan egun horretan biltzen ez dagokion frakzioa jasotzeko aukera eskaintzen duena)
- AUZOKONPOSTA ETA AUTOKONPOSTA INDARTZEA (HOBARIAK)
- KOMERTZIOETAN BILKETA ATEZ ATE EGITEN DA

Hona hemen sistema honen inguruan atera diren iritziak:

ALDAGAIA	INDARGUNEA	AHULGUNEA
Gaikako bilketa	<ul style="list-style-type: none"> • Birziklatze tasarik altuena eskaintzen du. • Garbiena da. • Asko birziklatzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> • Intimitate falta.
Inpaktu ekonomikoa: bilketa eta tratamendua	<ul style="list-style-type: none"> • Etorkezunean amortizatzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> • Hasieran inbertsio altua eskatzen du.
Egungo azpiegituren erabilera		<ul style="list-style-type: none"> • Sistema guztia berritu beharra.
Herritarren egokitzapena	<ul style="list-style-type: none"> • Egokitu ondoren ongi egingo da. 	<ul style="list-style-type: none"> • Hasieran zaila
Erosotasuna (ordutegia,...)	<ul style="list-style-type: none"> • Estetikoki garbiagoa da. • Ondo erabilia garbia da. • Usainik ez. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ordutegi mugatua • Posteak estetikoki itsusiak dira.
Erabiltzaileen erantzukizuna eta kontzientzia	<ul style="list-style-type: none"> • Akatsak erraz konponduko dira. 	

SISTEMA MIXTOA:

Hauek dira kokapen gisa sistema honen ezaugarri nagusiak:

- %75TIK GORAKO BIRZIKLATZE TASA ESKAINTZEN DU batez beste
- FRAKZIO BATZUK EDUKIONTZI BIDEZ ETA BESTE BATZUK (ORGANIKOA EDOTA ERREFUSA) ATEZ ATE BILTZEN DIRA
- SISTEMA DESBERDINAK EGON DAITEZKE ATEZ ATE BILTZEN DIREN FRAKZIOAK JASOTZEKO: ZINTZILIKARIOA EDOTA ATARIETAN JASO
- PAPERETA ETA ONTZI ARINAK EDUKIONTZIA MANTENTZEN DA
- EDUKIONTZIEN ORDUTEGIA LIBREA IZANGO DA
- FRAKZIO KONTROLATUAK (Organikoa edota errefusa) BILTZEKO ORDUTEGI BAT DAGO
- INBERTSIOA HANDIA HASIERAN (diru-sarrerekin amortizatzeko aukera)
- LARRIALDI GUNEA DAUDE (FRAKZIO BEREZIETARAKO)
- AUZOKONPOSTA ETA AUTOKONPOSTA INDARTZEN DA (HOBARIAK)

Hona hemen sistema honen inguruan atera diren iritziak:

ALDAGAIA	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
Gaikako bilketa	<ul style="list-style-type: none"> • Portzentaje altua. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ordutegia frakzio batzuk ateratzeko.
Inpaktu ekonomikoa: bilketa eta tratamendua		<ul style="list-style-type: none"> • Hasieran inpaktu ekonomikoa
Egungo azpiegituren erabilera	<ul style="list-style-type: none"> • Aldaketa gutxi. • Komunitarioa izatea ona. • Kontrolatua izatea ona. 	<ul style="list-style-type: none"> • Erosotasun gutxi.
Herritarren egokitzapena	<ul style="list-style-type: none"> • Egokitu ondoren ondo. 	
Erosotasuna(ordutegiak ,...)	<ul style="list-style-type: none"> • Komodoa. 	<ul style="list-style-type: none"> • Lioa. Gauza bat bestera eta bestea bestera. • Kale estuetan atez ate frakzioak biltzea zaila.
Erabiltzaileen erantzukizuna eta kontzientzia	<ul style="list-style-type: none"> • Erraza. 	

4. ITXIERA ETA HURRENGO URRATSAK

Ariketa hau bukatzearekin batera saioa bukatutzat eman da.

Hurrengo saioaren hitzordua gogoratu da:

URRIAREN 29, arratsaldeko 15.00tan ZABIELen. Saio honetan Mutrikurako bilketa sistema berriaren ezaugarriak proposatzeko saioa izango da.